

Kultur agenda

Angeles margarit Egian

Hilaren 12an, igandea, Angeles Margaritek "Peces mentideres" dantza ikuskizuna eskainiko du Egiako kultur etxean. Heura izeneko taldean aritu eta gero, Margaritek 1985ean Mudances dantza konpainia sortu zuen. Talde ikuskizun ugari zuzendu eta antzeztu ditu dantzari kataluniarrak baita "Peces mentideres" obran bakarrikak lana eskainiko digu. Emanaldia 20.00etan hasiko da.



Maiatzak 11 larunbata
Maiatzak 18 larunbata




Ttak eta Starlites Aitzan

Ttak taldeak kontzertua emango du hilaren 11n, larunbata, Aitzako kultur etxean. Ttak-ek 2000n kaleratu zuen lehen diskoa, "Ttak atak", eta egun buru-belarri dabil bigarren diskoa prestatzen. Ttak-ekin batera Starlites taldea ariko da. Emanaldia 22.00etan hasiko da.

Ismael Serrano kursaalean

Ismael Serranok kontzertua emango du Kursaal entzutzokian, hilaren 11n, larunbata. Serrano 1974an jaio zen Vallecasen eta Madrilgo hainbat tabernatan aritu zen 90eko hamarkada hasieran. Abeslari espainiarrak 1997an kaleratu zuen lehen diskoa, "Atrapados en azul", eta orduz geroztik, beste hiru plazaratu ditu. Donostiako kontzertuan Serranok "La tradición de Wendy" disko berriaren abestiak joko ditu. Emanaldia 20.30ean hasiko da.



XVIII. mendeko orkestra kursaalean

Hilaren 12an, igandea, XVIII. Mendeko Orkestrak kontzertua eskainiko du Kursaal entzutzokian. Frans Brügen holandarrak sortutako orkestra XVIII. mendeko musikan aditua da eta garai hartako musika tresnak erabiltzen ditu. Orkestrarekin batera punta-puntako bakarlantzez osatutako Niderfáns Kammerkoor, abesbatza ariko da. Kontzertuan Kraus eta Mozarten obrak joko dituzte. Emanaldia 20.00etan hasiko da.